

NATURKLIMAREN JARDUKETA-PLANA - 2026. URTEA

2026eko ekitaldiko jarduketa-planak, Fundazioaren 2023-2026 Plan Estrategikoak ezartzen dituen 4 ildo estrategikoetan eta 15 helburu estrategikoetan du oinarria. Plan hori 2023/06/22an onartu zuen Fundazioaren Patronatuak.



1. ILDO ESTRATEGIKOA: KLIMA-ALDAKETARI BURUZ ESKURA DAGOEN INFORMAZIOA SENDOTZEA, ADMINISTRAZIOAREN ERABAKIAK HOBETZEKO

KLIMA-ALDAKETAREN BEHATOKIA

1. 1.1 Helburu Estrategikoa: GFari klima-aldaketa buruzko informazio eguneratua ematea. Jarduerak:
 - a. Datuak lortzea eta eguneratzea, prozesatzea eta aztertzea eta ondoren mitigazio- eta egokitzapen-arloan ezarritako adierazleen koadroa interpretatzea ere.
 - b. Behatokiko funtsezko elementuak eguneratzea eta hobetzea:
 - i. Klima-aldaketa jarraipenari buruzko datuetarako irisgarritasuna hobetzea, Fundazioaren webgunearen bidez.
 - ii. Room Kontrolean, dokumentu-zentroan eta klima zaintza-sarean eguneratzeak burutzea.
2. 1.2 Helburu Estrategikoa: Klima-aldaketa Gipuzkoan dituen ondorioen eta EGLCC Klima Aldaketaren aurka Borrokatzeko Gipuzkoako Estrategiaren ezarpenaren jarraipena egiteko txostenak egitea. Jarduerak:

- a. VII. idatzi eta argitaratzea. Urteko txostena.
- b. Kostaldeko Itsasertzeko Behatokiaren urteko txostena idaztea eta argitaratzea, klima-aldaketaren inpaktuari, kalteberatasunari eta klima-aldaketara egokitzeari dagokiona.
- c. Klima-aldaketak Gipuzkoan duen eragina aztertzeke alderdi garrantzitsu eta interesgarriei buruzko txosten monografikoak – FOCUS – idaztea eta argitaratzea.
- d. Gipuzkoako berotegi-efektuko gasen isurketen inbentarioaren urteko txostena idaztea eta argitaratzea.
- e. Donostiako Udalarentzat jasangarritasunaren arloko txosten teknikoak egitea.
- f. Klima Aldaketak Euskadiko Lurreko Biodibertsitatean dituen Ondorioak Behatzeko eta Jarraitzeko lanaren jarraipena (Behaketa Sarea), LIFE Urban Klima proiektuaren esparruan.

2. ILDO ESTRATEGIKOA: GIPUZKOAKO ENPRESA-SARETIK EKONOMIA HIPOKARBONIKO ETA BERDERANZKO TRANTSIZIOA BULTZATZEA ETA BIZKORTZEA

GIPUZKOAKO BORONDATEZKO KARBONO-FUNTSA:

- 1. 2.1. Helburu Estrategikoa: Gipuzkoako Borondatezko Karbono Funtza sustatzea isuriak konpentsatzeko lurraldeko erreferentziatzeko mekanismo gisa. Jarduerak: atxikipen-eskaerak izapidetzea, eta dohaintzen kudeaketa eta administratzea.
- 2. 2.2. Helburu Estrategikoa: BEG isuriak konpentsatzeko obrak eta proiektuak exekutatzeko, TEZ-rekin koordinatuta. Jarduerak: toki-erakundeentzako gauzazko laguntzen deialdiaren barruan hautatutako proiektuei lotutako obrak gauzatzea.
 - a. Dohaintzak erakartzeko ekintzak: enpresa-harremanak, enpresa-erakundeei banaka nahiz modu asoziatiboan egindako ekitaldiak eta aurkezpenak, bai eta BKFaren sustapen-jarduerak ere.
 - b. Proiektu-zorroa, Gipuzkoako natura-ondarea hobetzeko proiektuak bultzatzeko toki-erakundeei gauzazko laguntzak emateko deialdiaren bidez (azpiegitura berdea, karbono-hustubideak, biodibertsitatearen kontserbazioa, etab.).
- 3. 2.3. Helburu Estrategikoa: Berotegi-efektuko gasen isuriak konpentsatzeko obrak eta proiektuak gauzatzea, TEZ-rekin koordinatuta. Jarduketak: toki-erakundeentzako

gauzazko laguntzen deialdiaren barruan hautatutako proiektuei lotutako obrak gauzatzea..

4. 2.4. Helburu Estrategikoa: BKF-ri delizazio-ekintzak egitea. Jarduerak: BKF-ri dohaintza ematen dioten enpresak aintzatesteko ekitaldia, BKF-ren esparruan gauzatutako proiektuak bisitatzeko inaugurazio-ekitaldiak, eta iraunkortasunari lotutako jarduerari dagokionez, erakunde emaileen jardueraren aldizkako jarraipena eta harremana.

CIRCULAR RECYCLING HUB

1. 2.5. Helburu Estrategikoa: Ekonomia zirkularra, deskarbonizazioa eta jasagarritasuna sustatzea Gipuzkoako enpresentzako lehiakortasun-aukera gisa. Jarduerak:
 - a. ZIRKULAR BAT + EKOSISTEMA sendotzea eta kudeatzea: baterien ekosistema zirkularren 2025eko ekintzen hedapena estrategia global gisa, lurraldean balio- kate osoan baterien industria zirkularra sortzeko beharrezkoak diren azpiegiturak eta jarduera teknologikoak barnean hartzen dituen, lurraldeko funtsezko eragile lokalekin (enpresak, zentro teknologikoak eta ezagutza-eragileak) eta Euskadiko nahiz Estatuko beste eragile batzuekin lankidetzan.
 - b. Bateria birziklatuetako materialak karakterizatzeko laborategiaren - **"Naturklima laborategia"** - dinamizazioa. Jarduera horri esker, balio-kate osoan bateriak birziklatzeko industria sortzera bideratutako azpiegitura eta jarduera teknologikoak indartu eta sendotu ahal izango dira.
 - c. Ekintzak garatzea eta kudeatzea CIDETEC-ekin sinatutako lankidetzahitzarmenaren esparruan (2023), Gipuzkoan birziklatzearen eta baterien balio-kateko irtenbide zirkularren inguruan jarduera ekonomikoa sortzeko.
 - d. Ekintzak garatzea eta kudeatzea ADEGI-ren Ekintzaileen Foroarekin sinatutako lankidetzahitzarmenaren esparruan (2022), iraunkortasunerako bokazioa duten enpresaburu berriei laguntzeko, prestakuntza emateko eta mentorizatzeko.
 - e. Lurraldeko hotel-sektorean jasagarritasuna sustatzeko eta klima- aldaketaren aurka borrokatzeko ekintzak sustatzeko ADEGI-ko Hotelen Elkartearetik lankidetzahitzarmenaren (2023) esparruan ekintzak garatzea eta kudeatzea.
 - f. Lankidetzahitzarmena ASCONGI-rekin (2023) lurraldearen eraikuntzaren sektorean jasagarritasuna eta klima-aldaketaren aurka borrokatzeko ekintzak sustatzeko.

- g. DONOSTIAKO UDALArekiko lankidetzeta-hitzarmena, sektore publikoaren, pribatuaren eta herritarren artean sinergiak sortzea bilatzen duena, Gipuzkoan eraldaketa iraunkorra sustatuz.
2. 2.6. Helburu Estrategikoa: Gipuzkoako enpresa-sektorean dauden Ekonomia Zirkularraren ekimenak indartzea eta sendotzea:
 - a. GK Recycling klusterra dinamizatzea eta bere bazkideei laguntzea, Naturklima-ren estrategian planteatutako ekonomia zirkularreko berrikuntza eta ekintzailatza sustatzeko eta bizkortzeko ekintzekin bat etorriz.
 - b. Etengabeko zaintza teknologikoa eta informazio estrategikoaren zabalkundea ekonomia zirkularrarekin lotutako jardura duten enpresentzat: GK Recycling-en hileko buletina, 'Dendatu'ren hileko buletina (Gipuzkoako saltokientzat) eta baita mailing puntualen eta enpresekin egindako bileren bidez.
 - c. Gipuzkoako industrian Ekonomia Zirkularraren eta GJH-en autodiagnostikorako Circular Scan tresna kudeatzea eta hedatzea, eremu horietan hobekuntza-prozesuetan orientatzeko.
 - d. Gipuzkoako Bazkundearekin lankidetzan, Gipuzkoako enpresa-sektorean iraunkortasuna bultzatzeko programa bat abian jartzea, erakundeen lehiakortasunerako eta iraupenerako funtsezko elementu gisa.
 - e. TEZ-ri laguntzea Ekonomia Zirkularraren arloan Naturklima-ri agintzen dizkion mandatuetan.
 3. 2.7. Helburu Estrategikoa Gipuzkoan ekonomia zirkularreko proiektu berritzaileak sortzea, bultzatzea eta bizkortzea. Jarduerak:
 - a. Ekonomia zirkularrean berrikuntza eta ekintzailatza sustatzeko "Enpresen erronkak klima-aldaketaren aurkako borrokan, ekonomia zirkularra sustatuz" programaren VIII. deialdia.
 - i. Laguntza teknikoa, erlazionala eta enpresa-mailakoa ematea "Enpresen erronkak klima-aldaketaren aurkako borrokan, ekonomia zirkularra sustatuz" programaren VI. eta VII. deialdiak irabazitako enpresa bizkortuei.
 - b. Circular Lab garatzea Ekonomia Zirkularraren esparruan Gipuzkoan garatu daitezkeen negozio-aukeren erreferentziatzko gune gisa. Horretarako, ekintza hauek proposatzen dira:
 - i. Hondakinen/baliabideen materioteka (MATERIATEGI) hedatu eta

garatzea, Gipuzkoako lurraldeko enpresetan sortutako hondakin eta baliabide motak sailkatzeko, informatzeko eta zabaltzeko. Tokiko, lurraldeko eta nazioko erreferentzia-espazio gisa, urtero 20-30 material berriak gehituko dira.

- ii. Materiotekaren edizio digitala diseinatzea eta abiaraztea Naturklima-ren webgunean, hondakinei/baliabideei dagozkien fitxak biltzen dituen datu-base bat barneratuz.
- iii. Lab Zirkularra hornitzea, materioteka ekonomia zirkularreko esperimentaziorako eta prototipoetarako ekipamendu espezializatuarekin (hardwarea eta softwarea).

RENEWABLE ENERGY HUB

- 1. 2.8 Helburu Estrategikoa: GFaren 2050erako Jasangarritasun Energetikoaren Estrategia eta Gipuzkoa KLIMA 2050 babestea. Jarduerak:
 - a. Estrategia horiekin lotutako adierazleak eta datuak berrikustea eta eguneratzea.
 - b. Jasangarritasun Energetikoaren Foru Batzordeak administrazioan egiten dituen bileretan parte hartzea.
 - c. TEZ-ri laguntzea ekoizpen-sektoreen deskarbonizaziorako ibilbide-orria hedapenean.

3. ILDO ESTRATEGIKOA: EZAGUTZA SORTZEA ETA TRANSFERITZEA, TRANTSIZIO EKOLOGIKOA BIZKORTZEKO.

- 1. 3.1. Helburu Estrategikoa: Klima-aldaketaaren arloko ezagutza teknikoaren zabalkundea egitea. Jarduerak:
 - a. Klima Aldaketaren Behatokiaren jarduerari buruzko zabalkundea eta sustapena:
 - i. Urteko txostena aurkezteko egintza.
 - ii. Erakustoki txiki Naturklima eraikinaren sarreran.
 - b. Praktika Erkidegoen Hedapena (CLIMATE SOCIAL LABS GIPUZKOA). Gipuzkoan ekintza klimatikoa bultzatzeko, garapen-agentziekin eta mankomunitateekin lankidetzan.
- 2. 3.2 Helburu Estrategikoa: Herritarrak eta ikasleak klima-aldaketaaren arloan prestatzea eta sentsibilizatzea. Jarduerak:

KLIMA ALDAKETARI BURUZKO IKASGELA

- a. Klima-aldaketari buruzko sentsibilizazio- eta prestakuntza-tailerrak eta GJH-ak, Gipuzkoako ikastetxeetako batxilergoko ikasleei zuzenduta.
 - i. 'OCA CLIMÁTICA'-ren tailerrak Ingurumen Hezkuntzaren Munduko Egunean.
 - ii. 'Z belaunaldia & Klima Aldaketa' urteko programa.
 - b. KlimaBai! 2024 lehiaketa unibertsitate-zentroetako eta heziketa-zikloetako hezkuntza-komunitateari zuzendua.
 - c. KlimaBai! Kirola lehiaketa GBC, Bera Bera eta C.D. Bidasoa-rekin egindako babes-kontratuen esparruan.
 - d. Hainbat gizarte-kolektibori zuzendutako beste sentsibilizazio- eta kontzientziazio-ekintza batzuk, adibidez, 55 Plus.
3. 3.3 Helburu Estrategikoa: Ekonomia zirkularraren arloko ezagutza teknikoa zabaltzea. Jarduerak:
- i. Bidasoa-Txingudi, Oarsoaldea, Beterri-Buruntza eta Donostialdea eskualdeetan ekonomia zirkularra eta hondakinen prebentzioko, bereizketa selektiboko, birziklapeneko eta berrerabilpeneko jardunbide egokiak bultzatzeko 2025-2026 bitarteko babes-kontratuak garatzea C.D. Bidasoa, Gipuzkoa Basket eta Bera Bera kirol-klubekin.
 - ii. EHU/EHUko Enpresa Ekonomia Zirkularreko Gelarekin lankidetzan aritzea, Jasangarritasun Departamentuarekin ezarritako hitzarmenaren esparruan.

4. ILDO ESTRATEGIKOA: NATURKLIMA FINKATZEA TRANTSIZIO EKOLOGIKOA BIZKORTZEKO TOKIKO, ESTATUKO ETA NAZIOARTEKO ERREFERENTZIAZKO FUNDazio KAUDIMENDUN, ERAGINKOR ETA EFIZIENTE GISA.

1. 4.1 helburu estrategikoa: komunikazio-estrategiaren ezarpena indartzea. Jarduerak: Naturklima-ren presentzia erreferentziazko foro espezializatueta eta lurraldeko funtsezko erakundeekin lankidetzatza.
2. 4.2. Helburu Estrategikoa: Diru-sarreraren iturriak dibertsifikatzea. Jarduerak:

EUROPAR PROIEKTUAK

- a. LIFE URBANKLIMA 2050: Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan, KLIMA 2050 estrategiaren hedapenerako.
- b. Pirinioetako LIFE-SIP PYRENEES4CLIMA. Pirinioetako eremuan, Frantzia, Espainia eta Andorra, Pirinioetako estrategia klimatikoa hedatzeko.
- c. POCTEFA AI4FLOOD: adimen artifizialean oinarritutako tresnaren garapena, alerta goiztiarrerako eta uholde-arriskuaren prebentziorako. Nafarroa, Euskadi eta Frantzia.
- d. POCTEFA COMDUR: ekonomia zirkularra POCTEFA lurraldeko merkataritzako ETEetan integratzeko babesa.
- e. INTERREG BLUE POINT: itsas inguruneke ekonomia zirkularra bultzatzea (ekonomia urdina) Arku Atlantikoaren inguruan.
- f. SIRACLE: Aurkeztua eta ebazpenaren zain.
- g. ENZYET2G: Entzimek eraginkortasun espezifikotasun selektibitate, bidodegradagarritasun, toxikotasun eta baldintza biologiko leunetan eraginkortasunez funtzionatzeko gaitasun handia dute.
- h. Beste batzuk:
 - i. Eragile interesdun gisa parte-hartzea SCORE proiektuan (Smart control of the climate resilience in European coastal cities).
 - ii. CIRCULAR BIOCARBON proiektuan interesa duten Hirien Taldean eta International Advisory Board-en (IAB) parte-hartzea.
 - iii. NEWFEED PRIMA proiektuaren International Advisory Board-en (IAB) parte-hartzea.
 - iv. LIFE ECOFEED proiektuaren International Advisory Board-en (IAB) parte-hartzea.
 - v. MODEL2BIO (Modelling tool for giving value to agri-food residual streams in biobased industries) proiektuaren International Advisory Board-en (IAB) parte hartzea.
 - vi. CIRCULAR BIOBASED proiektuaren batzordean parte-hartzea.

2025eko eta 2026ko aurrekontu- diferentzien txostena

Informe diferencias presupuesto 2025 y 2026

II. kapituluko gastuetarako, 2025ekoaren aldean gehitzea aurreikusten da, estrategikotzat jotzen diren ekintza hauek direla eta:

1. Bidasoa-Txingudi, Oarsoaldea, Beterri-Buruntza eta Donostialdea eskualdeetan ekonomia zirkularra eta hondakinen prebentzioko, bereizketa selektiboko, birziklapeneko eta berrerabilpeneko jardunbide egokiak bultzatzeko 2026. Urtean babes-kontratuak garatzea C.D. Bidasoa, Bera Bera R.T. eta Gipuzkoa Basket kirol-klubekin.

Para los **gastos del Capítulo II**, se prevé aumentar con respecto a la ejecución de 2025 debido fundamentalmente a las siguientes acciones consideradas estratégicas:

1. Desarrollo de los contratos de patrocinio durante el año 2026 con los clubes deportivos C.D. Bidasoa, Bera Bera R.T. y Gipuzkoa Basket para el impulso a la economía circular y las buenas prácticas en la prevención de residuos, la separación selectiva, el reciclaje y la reutilización en las comarcas de Bidasoa-Txingudi, Oarsoaldea, Beterri-Buruntza y Donostialdea.

VI. kapituluko gastuetarako, 2026. urtean Gipuzkoako Karbonoaren Borondatezko Funtsari egindako dohaintzetatik etorriko dira aldeak.

Para los **gastos del Capítulo VI** las diferencias vendrán derivadas de las donaciones recibidas al Fondo Voluntario de Carbono de Gipuzkoa durante el año 2026.